

hezkuntzako laboralak

BESTE IKASTURTE BAT ETA LAN-HITZARMENIK EZ

Ikasturte amaieran, Hezkuntza Sailak eta CCOO sindikatuak Irakasle Funtzionarioen Akordioa sinatu zuten, gainontzeko sindikatuok eta langilegoaren gehiengoaren aurka.

Orain arte Hezkuntzako sektore desberdinetako borroka ildo beretik joan da. Hemendik aurrera Irakasle funtzionarioek Akordio berri honek ekarri duen langilegoaren arteko banaketa (tutoreek eta koordinatzaileek besteok baino gehiago kobratuko dute) eta beste hainbat arazo gainditzeko, (zenbait irakaslek egonkortasuna galdu izana e.a.) borroka dute aurretik.

Hezkuntzako lan legepeko irakasle zein hezitzaileok, berriz, borrokan jarraitu behar dugu Lan hitzarmenaren negoziazioa martxan jartzeko, izan ere 2003. urtetik aurrera Lan Hitzarmen berarekin jarraitzen baitugu.

Borroka indartzeko **STEE-EILAS**ek batasun sindikalaren aldeko apustua egingen du, langilegoaren parte-hartzearekin batera, negoziazioa aurrera ateratzeko aukera bakarria dela ikusten baitugu.

Hitzarmen duin baten alde borrokatzen dugu hauexek direlarik guretzat ezinbestekoak:

- Ordezkoentzat uda kobratu eta kotizatze eskubidea.
- Soldaten igoera.
- Lanaldiaren gutxiagotzea.
- Fisioterapeuta eta Lan-Terapeutentzako soldaten homologazioa.

- Erretiro saria guztiontzat.
- Gizarte Fondoa guztiontzat

ORDUTEGIAK

HPB dituzten ikasleentzako erre-kurtsoak asignatzerako orduan, irizpide ekonomikoak ezartzeak, ikaste-teeetan gero eta nahasiagoak diren egoerak bizitzera eramaten du. Alde batetik ikasle hauen eskubideak ez direlako errespetatzen eta bestetik lan karga handia sortzen duelako, lan antolamendua erabat zailduz. Ondorioz, eguneroko lan giroa okertu egiten da.

Hainbatetan ordutegi/egutegiak egiterakoan, ikastetxe bakoitzeko ikasleek dituzten beharrak zehazteko orduan, irizpide pedagogiko ezak arazo nabarmenak sortzen ditu. Kasu haue-tan ezadostasuna agertuz gero, garrantzitsua da jakitea ordutegia sinatzeko beharra ez dagoela, baina bai bete behar dela..

Hitzarmenean jasotzen da, onar-tuta ez dauden ordutegiak mahai pa-rekidean berraztertze aukera bada-goela; beraz arazoak izanez gero, ga-rrantzitsua da **STEE-EILAS**ekin kon-taktuan jartzea dagokion delegaritzan erreklamatu ahal izateko eta Lakuan landu baino lehen, egoera ezagutzeko.

hezkuntzako laboralak

2007ko esleipenak

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak						
06-07			07-08			
	Osoak	Partzialak	Guztira	Osoak	Partzialak	Guztira
ARABA	56	14	70	34	21	55
BIZK.	103	23	126	58	42	100
GIPUZK	54	31	85	35	38	73
Guztira	213	68	281	127	101	228

Datu hauek aztertzeko orduan, kontuan izan behar dugu OPE prozesua dela eta 75 plaza gutxiago atera direla Eibarko esleipenean. Hori jakinda zera esan dezakegu, nahiz eta iaz baino plaza gehiago izan aurten, plaza osoak gutxiagotu egin dira eta murriztuak gehitu. Datu horietatik ondorioztatzen dugu Administrazioaren asmoa dirua aurrezteka dela, ikasleen eta langileen lepotik bada ere. Salatu beharra dugu ere, lanaren prekarietatea handiagotzen dela holako erabakien bitartez.

	Fisioterapeutak		Terapeutak		Transkriptoreak		Zeinu hizkuntzako interpreteak	
	06-07	07-08	06-07	07-08	06-07	07-08	06-07	07-08
Araba	2	2	--	2	--	--	--	2
Bizkaia	4	4	2	--	2	2	--	7
Gipuzkoa	--	--	2	2	--	--	--	1
Guztira	6	6	4	4	2	2	--	10

Beste kategorian hauetan berriz, ez da aipatzeko aldaketarik egon. Aurten egon den aldaketa nabarmenena kategorian berri bat esleitzearena izan da: zeinu hizkuntzako interpreteena hain zuzen ere.

07-08KO IKASTURTEAN LIBERATUTA EGONGO DIRENAK

Araban: Aloña
Bizkaian: Onintze eta Lourdes
Gipuzkoan: Oihana eta Nagore

Egoitzetako ordutegia:

Goizetan: **9**tatik **14**etara
 Arratsaldetan: **16**tik **19**ra

irakasle laboralak hezkuntza laguntzako espezialistak fisioterapeutak logopedak
 lan-terapeutak transkriptoreak eta materialaren egokitzaileak
 zeinu hizkuntzako itzultzaileak gizarte laguntzaileak